

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>buruan erabili</b>	«—Ez, hausnartzen nago, beste barik. —Zer <b>darabilzu</b> buruan?»
<b>nozitu</b>	«Begiratu zertzuk <b>nozitu</b> ditugun aspaldi honetan bere erruagatik.»
<b>mailatu</b>	«Telefonoa diru barik, kotxea <b>mailatuta</b> eta depositoa hutsik, eta gorputza kolpatuta; horrelaxe amaitu dut.»
<b>arnasari buelta eman</b>	«Minutu batzuk behar izan zituzten <b>arnasari buelta emateko</b> , eta orduan detektibeak zeozertaz oroitu zen, bat-batean...»
<b>akordura etorri</b>	«Porkyri Simonekin izandako azken elkarrizketa <b>etorri</b> zitzaion <b>akordura</b> eta, inork baino arinago erreakzionatuz, korearrari samatik oratu eta...»
<b>ziztrin</b>	«—Betaurrekoak apurtu dizkit txinatar <b>ziztrin</b> horrek!»
<b>kananarru</b>	«— <b>Kakanarru</b> , egin salto! —esan zuen gero Mustafak.»
<b>zizpuru</b>	«—Badirudi zaindarien haserrarazi dutela Betty, ezta, Petrus? —esan zuen Pilarrek, <b>zizpuru</b> eginez—.»
<b>destaina</b>	«Horretarako kontratatu nuen detektibe bat — <b>destainazko</b> begirada bota zion Artaberi—, baita ordainsaria eskaini ere.»
<b>selapela</b>	«Orduan honi <b>selapela</b> gu denok pozoiturik akabatzea!»
<b>udaberri-biribilki</b>	«...bazter guztietan jatetxeak irekitzen utzi dizuegu, makina bat <b>udaberri-biribilki</b> janean mantendu zaituztegu, zintzotasunez jokatu dugu zuekin...»
<b>makina bat</b>	«...bazter guztietan jatetxeak irekitzen utzi dizuegu, <b>makina bat</b> udaberri-biribilki janean mantendu zaituztegu, zintzotasunez jokatu dugu»
<b>amarru</b>	«—Ze <b>amarru</b> da hau? Ez dut ezer ulertzen.»
<b>erronkari</b>	«Detektibeak ez zien erantzun mespretxuzko hitzei, ezta begirada <b>erronkariari</b> ere.»
<b>txutxu-mutxuka</b>	«Oraindik <b>txutxu-mutxuka</b> jarduteko gogoz? Harrituta zeozergatik? Ihes egiteko planen bat prestatzen?»
<b>karraju</b>	«Ateondo txikitik abiatzen zen <b>karraju</b> laburraren amaieran, areto nagusian, ahotsak aditzen ziren...»
<b>osteratxo</b>	«Badakizu gutxien espero zitezkeen pertsonak ere pasatzen zirela nire lehengo lantokitik <b>osteratxo</b> bat egiten.»
<b>labezomorro</b>	«—Gogor tratatu behar dira <b>labezomorroak</b> —azken kaskasoilak seinalatu zituen begiradaz—, erruki barik. Beitu ze ezgauza diren orain...»
<b>kaskasoil</b>	«—Gogor tratatu behar dira <b>labezomorroak</b> —azken <b>kaskasoilak</b> seinalatu zituen begiradaz—, erruki barik. Beitu ze ezgauza diren orain...»
<b>ezgauza</b>	«—Gogor tratatu behar dira <b>labezomorroak</b> —azken kaskasoilak seinalatu zituen begiradaz—, erruki barik. Beitu ze <b>ezgauza</b> diren orain...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>lañotasunez</b>	« <b>Lañotasunez</b> begiratu zion atezainak detektibeari...»
.....	
<b>gandor</b>	«Beronek <b>gandorretik</b> helduta zeukan morroi bat, baina kolpeak jo, aireari baino ez zizkion jotzen. <b>Jaso</b> , ostera, ugari, alde guztietatik.»
.....	
<b>jaso</b>	«Beronek gandorretik helduta zeukan morroi bat, baina kolpeak jo, aireari baino ez zizkion jotzen. <b>Jaso</b> , ostera, ugari, alde guztietatik.»
.....	
<b>jazo</b>	«—Betiko gauzak baino ez dira <b>jazo</b> .»
.....	
<b>erdeinuz</b>	«...banan-banan begiratzen zien diskotekan sartzen ziren bezero guztiei, goitik behera, <b>erdeinuz</b> bezala, ezpainak estuturik.»
.....	
<b>zantzu</b>	«—Eztabaida bat izan du morroi batekin —aurreratu zen Artabe—. Beronek <b>zantzu</b> batzuk baino ez dauzka. Bestea ikusiko bazenu, berriz!»
.....	
<b>morroi</b>	«—Eztabaida bat izan du <b>morroi</b> batekin —aurreratu zen Artabe—. Beronek zantzu batzuk baino ez dauzka. Bestea ikusiko bazenu, berriz!»
.....	
<b>jakingura</b>	«—Dena dela, zer nagusi? —galdetu zuen Etxebek, <b>jakinguraz</b> .»
.....	
<b>emango nuke</b>	«— <b>Emango nuke</b> —esan zuen Simonek, ziurtasuna adierazten zuen ahoskeraz— Manila-n aurki daitekeela erantzunen bat...»
.....	
<b>abagune</b>	«—Pantera arrosarik nahi duzu? —erantsi zuen berehala, detektibeari kexa agertzeko <b>abagunerik</b> eman gabe.»
.....	
<b>pantera arrosa</b>	«— <b>Pantera arrosarik</b> nahi duzu? —erantsi zuen berehala, detektibeari kexa agertzeko abagunerik eman gabe.»
.....	
<b>zirkin</b>	«Edonola ere, detektibeak ez zuen <b>zirkinik</b> egin laguna defendatzera joateko...»
.....	
<b>aztoraturik</b>	« <b>Aztoraturik</b> sentitzen zen, tabernako ihesaldiagatik baino areago, azken orduetan pilatzen ari zirelako gertaera interesgarriak...»
.....	
<b>arakatu</b>	« <i>Gora eta Gora</i> himnoaren doinua aditu zen inguruan. Simonek alboan tolestuta zeukan gabardinaren poltsikoak <b>arakatzeari</b> eman zion...»
.....	
<b>gora eta gora</b>	« <i>Gora eta Gora</i> himnoaren doinua aditu zen inguruan. Simonek alboan tolestuta zeukan gabardinaren poltsikoak arakatzeari eman zion...»
.....	
<b>kuluxka</b>	«—Ni ez. Tira, <b>kuluxka</b> txikitxoia bai egin dudala.»
.....	
<b>litxarrerria</b>	«—Orain ezin dugu, <b>litxarrerria</b> -denda itxita baitago laurak arte...»
.....	
<b>mutxurdin</b>	«Izan ere, jarraian <b>mutxurdinari</b> deitu diot, nire senak bultzaturik, eta badakizu zer esan didan?»
.....	
<b>senak</b>	«Izan ere, jarraian mutxurdinari deitu diot, nire <b>senak</b> bultzaturik, eta badakizu zer esan didan?»
.....	
<b>irrika</b>	«—Jakin nahi nuke, bai —erantzun zuen Etxebek, <b>irrika</b> handirik gabe, bere edalontziko oliba ahoratu bitartean.»
.....	

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>sumatu</b>	«—Kabrrrrroia! Kabrrrrroia! —errepikatzen zuen loroak aldi oro kutxa barrutik, bere patua zein zen <b>sumatuz</b> agian.»
<b>patu</b>	«—Kabrrrrroia! Kabrrrrroia! —errepikatzen zuen loroak aldi oro kutxa barrutik, bere <b>patua</b> zein zen sumatuz agian.»
<b>igual</b>	«—Hori ere egia da. <b>Igual</b> labur geratu nintzen —pentsatzen geratu zen burusoila—.»
<b>nora ezean</b>	«Zutitu eta espazio txikian <b>nora ezean</b> mugitzen hasi zen, purrustaka, burua berotzen ari zitzaion seinale.»
<b>purrustaka</b>	«Zutitu eta espazio txikian nora ezean mugitzen hasi zen, <b>purrustaka</b> , burua berotzen ari zitzaion seinale.»
<b>kankailu</b>	«Laguntzailea ere badauka, are leloagoa dirudiena, baina <b>kankailu</b> ederra da eta beharbada...»
<b>gako-hitz</b>	«Profesional onak dira eta ohituta daude <b>gako-hitzekin</b> funtzionatzen. Diruditen baino azkarragoak dira...»
<b>joaldi</b>	«Eta zertan aritu zara hor barruan ijito, mairu eta txinatarren artean? —Noren artean? Ni <b>joaldi</b> bizkor eta osasuntsua egitera etorri naiz hona, beste barik.»
<b>ño</b>	«—Niri ere bai? <b>Ño</b> , hau da nahastea! Hemen zerbait oso susmagarria dago...»
<b>papar-hegal</b>	«Gabarbinaren <b>papar-hegalak</b> goraino igota azaldu zen gizon txikiaren irudia <i>Look</i> pubeko beiratearen aurrean.»
<b>beirate</b>	«Gabarbinaren papar-hegalak goraino igota azaldu zen gizon txikiaren irudia <i>Look</i> pubeko <b>beiratearen</b> aurrean.»
<b>amore eman</b>	«...harridura mesfidantza bilakatuz joan zen, gero etsimendu, eta azkenean <b>amore eman</b> zuen.»
<b>jendilaje</b>	«...pixka bat gehiago hausnartu beharko duzu esaten duzuna, <b>jendilaje</b> horren aurrean ezin baita edozer aipatu...»
<b>piperra egin</b>	«— <i>Mertxero</i> , <b>piperra egin</b> duzu gaurko zeremoniara!»
<b>patriarka</b>	«—Nahi duzun bezala —berriro <b>patriarkak</b> —.»
<b>zentzumen</b>	«—Izan <b>zentzumenak</b> erne —erantsi zuen Artabek eta eskua eman zion gorilari agur gisa.»
<b>bihozkada izan</b>	«—Ba... oraindik ez nago ziur, baina <b>bihozkada izan</b> dut lurrean ikustean...»
<b>kirrinkari</b>	«...pasabide luzeak, ate <b>kirrinkariak</b> , gela handi eta bakartiak, antzinako altzariak...»
<b>kilikagarri</b>	«—Gutxi gorabehera. Keinu <b>kilikagarri</b> bat edo beste egin dit, baina nik argi daukat berarekin erlazio profesionala baino ez dudala nahi.»
<b>txortaldi</b>	«Ziur <b>txortaldi</b> batzuekin konponduko litzatekeela, baina...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>txundigarri</b>	«— <b>Txundigarria</b> , zenbat zoro dagoen munduan!»
.....	
<b>mamala</b>	«—Beckham-ek –esan zuen andrazko batek. —Ez, <b>mamala</b> , Ronaldinho izan da –erantzun zion gizonezko batek.»
.....	
<b>erabakitsu</b>	«Kasianengana hurbildu zen <b>erabakitsu</b> , baina beronek gorputza jiratu eta bizkarra eman zion.»
.....	
<b>antxintxika</b>	«...ez zegoen amore emateko prest eta gelan zehar <b>antxintxika</b> hasi zen...»
.....	
<b>kikilkeria</b>	«...astiro eta hitzak ondo ahoskatuz, gelakidearen aurpegieran <b>kikilkeria</b> islatzen hasten zela sumatuz.»
.....	
<b>txizerreka</b>	«—Eta <b>txizerreka</b> botatzean ez zara inoiz batere zipriztintzen, ezta?»
.....	
<b>pagotxa</b>	«—Hara bestea! Nahiko zenuke zuk askotan suertatzea nire gisako <b>pagotxak</b> parean, eta ez azal-beltz gosekilak!»
.....	
<b>gosekil</b>	«—Hara bestea! Nahiko zenuke zuk askotan suertatzea nire gisako pagotxak parean, eta ez azal-beltz <b>gosekilak</b> !»
.....	
<b>pikuak</b>	«—Zorionekoa zara, ezta, neskatxa? (...) —Zorionekoa bai, <b>pikuak</b> !»
.....	
<b>melapela</b>	«Niri <b>melapela</b> zeinekin geratu.»
.....	
<b>aurpegiera</b>	«...bere begiradak topo egin zuen higuina eta ikara adierazten zuten mahaikideen <b>aurpegierekin</b> —.»
.....	
<b>babu</b>	«Haien gisako gayak, edo aita gaixo arruntak, edo <b>babu</b> hutsak.»
.....	
<b>ezagun izan</b>	« <b>Ezagun duzu</b> goi mailako detektibea zarena –esan zuen isekaz potoloak—.»
.....	
<b>mehaka</b>	«...esku banarekin atximurka egin zien <b>mehakako</b> haragi oparoetan, beragandik pixka bat aldendu zitezene—.»
.....	
<b>isekaz</b>	«Ezagun duzu goi mailako detektibea zarena –esan zuen <b>isekaz</b> potoloak—.»
.....	
<b>di-da</b>	«...halako ez tul txikia egin eta <b>di-da</b> , berarentzat ezinezkoa zirudien salto bizkor batez, klubaren sarrerako atalasea zeharkatu zuen.»
.....	
<b>atalase</b>	«...halako ez tul txikia egin eta di-da, berarentzat ezinezkoa zirudien salto bizkor batez, klubaren sarrerako <b>atalasea</b> zeharkatu zuen.»
.....	
<b>xarma</b>	«...gehienbat klubetan lekurik ez zeukatenek, zaharregiak edo batere <b>xarmarik</b> gabeak izateagatik.»
.....	
<b>prefosta</b>	«— <b>Prefosta</b> , Etxebe, prefosta! –tiranteak askatu, jarrera erlaxatu eta kidearengandik urruntzen hasi zen.»
.....	
<b>harpa jotzea</b>	«Edonola ere, haiek ez ziren jabetu latinoek zerabilten <b>harpa jotzeaz</b> , eta apurka-apurka amaierara iritsi ziren...»
.....	

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>jabetu</b>	«Edonola ere, haiek ez ziren <b>jabetu</b> latinoek zerabilten harpa jotzeaz, eta apurka-apurka amaierara iritsi ziren...»
<b>aurreragoko lanak</b>	«—Etxebe, mesedez, izan zaitez serioa, baditugu <b>aurreragoko lanak</b> eta!»
<b>halandaze</b>	«Gainera, esan didatenez, Etxeberrria ijito abizena da, <b>halandaze</b> ...»
<b>zakarkeria</b>	«—Zaude isilik, buruhandi! —moztu zuen detektibeak <b>zakarkeriaz</b> —.»
<b>aitaren baten</b>	«Korrikalaria zuhaixka batzuen artetik sartu eta <b>aitaren baten</b> desagertu zen denen begi bistatik»
<b>zerritona</b>	«Hori da larru gogorra! Nahi lukete bertako <b>zerritonek</b> kafetegi baten lan egin.»
<b>nagikeria</b>	« <b>Nagikerian</b> bizi dira hemen, gobernuak ematen dien diru-laguntzaren kontura.»
<b>biraoa</b>	«Ijito biak ere sutan paratu eta <b>biraoa</b> eta madarikazioka hasi zitzaizkion.»
<b>lar ondo</b>	«...nahiz eta hain zalaparta handiaren arrazoia <b>lar ondo</b> ulertu ez, al bait arinen urrundu zen Etxebe plaza txikitik.»
<b>paratu</b>	«Ijito biak ere sutan <b>paratu</b> eta biraoa eta madarikazioka hasi zitzaizkion.»
<b>albait</b>	«...nahiz eta hain zalaparta handiaren arrazoia lar ondo ulertu ez, <b>albait</b> arinen urrundu zen Etxebe plaza txikitik.»
<b>kanpaia jo</b>	«—Zenbat aldiz esan behar dizut zeure etxera joateko <b>kanpaia jotzera</b> , buruhandi hori!»
<b>behegain</b>	«...harlauza griseko <b>behegaina</b> eta gezurrezko jareku zaharrak besterik ez zeukana.»
<b>pozarren</b>	«—Eta orain kanta diezaiogun <b>pozarren</b> gure Jaunari!»
<b>zoli</b>	«...ustekabean, giroa erabat hondatu zuen doinu <b>zolia</b> entzun baitzen aretoan.»
<b>kapela</b>	«—Amen —esan zuen, buruaz baietz eginez eta altzoan zeukan <b>kapela</b> pixka bat jasoz.»
<b>aldarri</b>	«Entzun dezala argi gure Jaungoikoak bere herriaren zorion <b>aldarria</b> : ALELUIA!»
<b>altzo</b>	«—Amen —esan zuen, buruaz baietz eginez eta <b>altzoan</b> zeukan kapela pixka bat jasoz.»
<b>herdoildu</b>	«Horixe zioen atari alboko letrero <b>herdoilduak</b> .»
<b>hausnartu</b>	«Pixka baten <b>hausnartu</b> zuen, kokospeko ileei tiraka...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:   
 Nota:

<b>arlote</b>	«Gero pauso lasai batzuk eman zituen aurrera, eta <b>arlote</b> talde batek betetzen zuen jarlekuaren inguruan gelditu zen.»
<b>arbuiatu</b>	«Azken batean, animalia <b>arbuiatu</b> horietariko gehienak sakrifikatu egiten dituzte bertan...»
<b>betikara</b>	«Andreak ez zuen <b>betikararik</b> ere egin hitz horiek esatean...»
<b>muin egin</b>	«...Pilarren eskua hartu eta <b>muin egin</b> zion...»
<b>poxpolin</b>	«—Deituidazu Simon, <b>poxpolina</b> , Si-mon —xuxurlatu zuen haren albotik pasatzean, begi bat itxiz.»
<b>purrustada</b>	«Idazkariak <b>purrustada</b> txiki bat egin zuen, baina ez zion irribarre txatxuko gizonari erantzun.»
<b>aldamenean</b>	«Erdi inguruan idazmahai bat zegoen, eta haren <b>aldamenean</b> zutik berrogeita hamar bat urteko andre tentea...»
<b>xuxurlatu</b>	«—Deituidazu Simon, poxpolina, Si-mon — <b>xuxurlatu</b> zuen haren albotik pasatzean, begi bat itxiz.»
<b>txatxu</b>	«Idazkariak purrustada txiki bat egin zuen, baina ez zion irribarre <b>txatxuko</b> gizonari erantzun.»
<b>motots</b>	«...eta <b>mototsean</b> bilduta zeukan ile hori tindatua.»
<b>begitandu</b>	«...zigarro puru meheari eusteko moduan halako aristokrata kutsua ematen ziotela <b>begitandu</b> zitzaion bisitariari.»
<b>tente</b>	«Erdi inguruan idazmahai bat zegoen, eta haren aldamenean zutik berrogeita hamar bat urteko andre <b>tentea</b> ...»
<b>hogeita hamataka</b>	« <b>Hogeita hamataka</b> urte izango zituen, baina askoz gehiago balitu bezala jokatzeko zuen neskarekiko.»
<b>talaian</b>	«—Espero dut ez egotea <b>talaian</b> . Bestela, hortik ateratzen bada akabo, ez dugu ihesbiderik, ez dugu astirik izango tranpola irekitzeko.»
<b>orro</b>	«...ireki egin zuen atea eta Kasianek, piztiarik beldurgarriena ere ikaratuko lukeen <b>orroa</b> eginez, jaurti egin zuen usoa gelaxka ilunaren barrualdera.»
<b>tranpola</b>	«—Espero dut ez egotea talaian. Bestela, hortik ateratzen bada akabo, ez dugu ihesbiderik, ez dugu astirik izango <b>tranpola</b> irekitzeko.»
<b>jaurti</b>	«...ireki egin zuen atea eta Kasianek, piztiarik beldurgarriena ere ikaratuko lukeen orroa eginez, <b>jaurti</b> egin zuen usoa gelaxka ilunaren barrualdera.»
<b>tentu handiz</b>	«...ezkerreko aterantz hurbildu, giltzari buelta bi eman <b>tentu handiz</b> , maratilaria heldu, eta Dorinen keinuaren zain geratu zen.»
<b>atoan</b>	« <b>Atoan</b> eman zizkion buelta bi giltzari, eta hormaren kontra ezarri zuen bizkarra, arnasestuka.»
<b>maratila</b>	«...ezkerreko aterantz hurbildu, giltzari buelta bi eman <b>tentu handiz</b> , <b>maratilaria</b> heldu, eta Dorinen keinuaren zain geratu zen.»